

Hizkuntza ereduak mantendu ala gainditu

Jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan A, B eta D ereduen artean hautatu daiteke. Eusko Jaurlaritzak datoen urteetarako hezkuntza curriculuma prestatu duen honetan, eskoletan ezarriko den hizkuntza politikaz aritu dira EAJ, EH-Bildu eta PSEko ordezkariak, Donostiako Udalak hezkuntzari berriki eskaini dizkion jardunaldietan.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

AURRERANTZEAN EAEko hezkuntza sistema egituratuko duten curriculum dekretuak prest ditu Jaurlaritzak, Heziberri planaren baitan. Hasierako zirriborroan, saiakera bat antzematen zen eragileek eta Euskadiko Eskola Kontseiluak aspalditik aldarrikatzen duten eskariari erantzuteko: eredu- tan oinarritutako sistema gaintzeko beharra. Azken finean, A (gaztelaniaz nagusiki) eta B (ikasgai batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz) ereduak ez dutela euskalduntzen argi diote ikerketek. Jaurlaritzaren lehen zirriborro hark euskara ardatz duen sistema eleanitza proposatzen zuen ikastetxeetarako; “euskara ohi- turaz eta modu normalizatuan erabi- tzen dela bermatuko da, barruko nahiz kanpoko jardueretan eta, oro har, eskolako ekintzetan”, zioen. Eskola osoa inplikatur, euskarari tra- taera integrala ematea eta irizpide horietatik abiatuta ikastetxe bakoit- zak hizkuntza proiektu propioa egi- tea planteatzen zuen.

Behin betiko dokumentuan, A, B eta D ereduak mantentzearen alde egin du azkenean Jaurlaritzak, eta aldagai zalantzarria gehitu du: eus- kara eskakizuna ikastetxearen inguru soziolinguistikoaren arabera egingo da. Eragile ugari ez du hori begi onez ikusi, euskararen ezagutza- n abiadura ezberdineko zentroak eta ghetto linguistikoak sor ditzakeela- koan. Denei euskara maila bera eska- tu beharko litzaiekeela eta helburu horretara iristeko zailtasun eta behar handiagoak dituzten zonaldeetan baliabideak jarri behar liratekeela

uste dute. Jaurlaritzarentzat aldiz, lorpen handia da ereduak mantendu ahal izateko Espainiako Gobernu- rekin hitzartu duen akordioa, LOM- CEk gai honetan eskua sar ez dezan.

Ingurumari horretan, gaiaz ezta- baidatu dute Jone Berriozabal EAJko legebiltzarkideak, Juanjo Agirrezabala EH-Bilduko legebil- tzarkideak eta Maria Luisa Gurrut- xaga PSEko Gipuzkoako Hezkun- tza arduradunak.

“Ataun eta Oion ez dira gauza bera, baina hortik abiatuta ere denentzat helburu orokorra jarri behar da eta Heziberrik ez du zehazten euskararen zein profil lortu behar duten ikasleek”

J. Agirrezabala,
EH-Bildu

Gauza bera eskatu behar al diegu Ataun eta Oioni?

“Espainiako Gobernuarekin Jaurlari- tzak lortutako akordioa azpimarra- tzekoa da. Gurean euskarak daukan garrantziari eragin ziezaiokeen LOMCEk, eta gure sistema babeste- ko akordioa lortu dugu. Euskara maila hobetzearen alde gaude, jakina, bai A ereduari, bai B ereduari eta baita D ereduari ere; eredu guztiek dute hobekuntzarako tartea eta prest gaude behar diren neurriak ezartze-

ko, ordu kopuruak areagotzeko edota metodologia egokitzeko, eus- kara maila hobetu dadin –dio Berrio- zabal jeltzaleak–. Nabarmendu behar da eredu bera izan arren, D eredu- a adibidez, ez dela berdina herri batean edo bestean aplikatzen denean”.

“Duela sei-zazpi urte jada Kon- tseiluak bere txosten guztietan esaten zuen ereduaren markoa gaintu egin behar dela. Saiakera egin zen 2008- 2009an, hezkuntza eragile guztien adostasunez, baina azkenean bere horretan gelditu zen. A, B eta D ere- duak mantendu eta hobetu behar direla diozu, eta badakit Ataungo D eredu- a eta Oiongoa ez direla inondik inora berdinak, baina hortik abiatuta ere denentzat helburu orokorra jarri beharra dago, eskolan ikasle euskal- dunak lortzeko, eta ereduaren markoa ez da horretarako baliagarria”, adie- razi du Agirrezabala EH-Bilduko kideak. “2009an behinik behin esa- ten zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen zutenerako eus- karaz B2 maila gaintzeko prestatu- ta egon behar zutela ikasleek. PSOEk kolpe batez kendu zuen hori eta orain Jaurlaritzaren Heziberri planak ez du zehazten hizkuntza aldetik zein profil lortu behar duten ikasleek”.

Heziberrik irteera profilaz hitz egiten duela erantzun dio Berriozaba- leki, baina modu orokorrean egi- ten duela: “Ikasleak izan beharko dituen gaitasunak azaltzen dira. Horrek ez du esan nahi gaitasun hori ebaluatzeko Europako markoko zenbaki bat eman behar zaionik, askoz orokorragoa da irteera profila:



Juanjo Agirrezabala (EH-Bildu), Jone Berriozabal (EAJ), Naiara Sampedro Donostiako Hezkuntza zinegotzia, Maria Luisa Gurrutxaga (PSE) eta Mikel Garcia moderatzailea, *Hezkuntza ereduen garrantzia gizartearen eraikuntzan jardunaldietan.*

hizkuntza gaitasuna izatea, hainbat hizkuntzatan". Gurrutxaga PSEko kideak gaineratu du B2 ez dela hezkuntza sistemarako marko bat, atzerriko hizkuntzen maila ebaluatzeko erabiltzen den adierazlea baizik, eta irteera profila jartzeak arrisku handiak dituela uste du, "zuk esan moduan Oion eta Ataun ez direlako gauza bera, eta beraz gauza bera eskatu behar al diegu, abiapuntu zeharo ezberdinak izanik? Gure ikasle gehienek ama hizkuntza ez da euskara eta espazio soziolinguistiko hori kontuan hartu behar da ez bakarrik ikasgelan metodologia ezberdinak erabiltzeko, baita errealitate horren barruan ikastetxeak malgutasunez aritu ahal izateko ere".

Eredu bakarra, Katalunian bezala?

EAJko ordezkariaren hitzetan, eredu sistema adostasun sozial eta politiko zabal batean dago oinarrituta eta eutsi egin behar zaio "hobe eta legezkora den eta euskararen segurtasuna bermatuko duen besterik ez dagoen bitartean. Aldatuko bagenu, gutxieneko lau aurre-baldintza eman beharko liriteke: marko berriak emaitza hobeak bermatzea, dugun legedian onargarria izatea, ikuspegi guztietatik egingarria izatea, eta herritarren gehiengoak ulertzea eta nahi izatea. Behin eta berriz diogu eleaniztasunean aurrera egin behar dugula, euskara ardatz hartuta, baina ez dut uste esan daitekeenik eredu sistemak goia jo duela, beste sistema batek, bat eta bakarrak, ez digulako ezer onik ekarriko". Eta galdera luza-tu dio EH-Bilduko legebiltzarkideari: "Ereduen markoa gaingitu beharra diozu: markoa gaingiditza zer da, eredu bat eta bakarra herri guztientzat? Eredu bat eta bakarra ikasle guztientzat? Horretaz ari bagara, gu

ez gatoz bat eta gainera ez da posible, gure buruari eman diogun legediak ez duelako onartzen". Izan ere, Euskararen Legearen arabera (1982) hizkuntza aukeratzeko familiek duten eskubidea bermatu behar da, eta hizkuntza ofizialak bi dira EAEen.

"Ez dut uste esan daitekeenik eredu sistemak goia jo duela. Eredu bat eta bakarra herri eta ikasle guztientzat? Ez gaude ados eta ez da posible, legeak ez du onartzen"

J. Berriozabal, EAJ

Agirrezabalak erantzun aurretik, PSEko ordezkariak hartu du hitza: ereduak garrantzitsuak direla dio, gizartearen egonkortasun eta kohesio elementu inportantea direla argudiatuta, eta hortik mugitzekotan, esperimentazio eta ebaluazio faseak beharko liritekeela azpimarratu du, "ebidentzian eta zehaztasun zientifikoan oinarrituta", eredu hobe dela ziurtatzeko. "Aldi berean, pentsatzen dut ez gaudela 1982an, gizartea asko aldatu dela eta hezkuntza sistemari beste gauza batzuk eskatzen dizkioleta gurasoek. Horiei erantzutea gure eginbehera da, beti ere akordioan oinarrituta". Isabel Celaá Hezkuntza sailburu zen garaian (PSE) era esperimentalean gauzatu zen hiru eleko eredu ekarri du akordura: eredu horrek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egin beharreko gutxieneko eta gehieneko ikastorduek finkatzen zituen eta kritikatu izan zen, beste hizkuntzen mesedetan ardatz behar

lukeen euskarari orduak kentzen zitzaizkiolakoan. Gurrutxagaren esanetan, baina, "eredu honen ebaluazioa oso ona izan zen; probatu zuten ikastetxeetan ingelesaren eza-gutza areagotu zen eta euskara ez zen kaltetuta aterata".

"Hiru eleko ereduak ingelesean emaitza onak eman zituela diozu eta euskarari ez ziola kalterik egin, baina hobekuntzarik ere ez zion ekarri" gogoratu du EH-Bilduko politikariak, eta horregatik uste du ikasleak euskalduntzeko ez dela marko egokia. Jeltzalearen itaunari ere erantzun dio: "Eredu bakarra ez omen da posible, baina Kataluniak murgiltze eredu dauka [gure D ereduaren parekoa, ikasgai gehienak euskaraz, haiek katalanez], eredu hori baino ez du, bakarra, eta ez da munda erori". Presentzia handiena euskarak izango duen marko berri batera urratsa emateko une aproposa dela garbi du Agirrezabalak: "2009rako lege proiektuan euskararentzat ikastorduen %60ko presentzia zegoen finkatuta, arrazoi oso sinple batengatik: orokorrean, %60ak bermatzen du hizkuntza konpetentzia oso onak izatea. Eta egin daiteke, aho-betez diozelako oinarri politiko eta sozial sendoa duela egungo eredu sistemak, baina 1982an onarturiko Euskararen Legetik eratorzen da sistema hau, eta zenbatek bozkatu zuen legea Legebiltzarrean? 75 parlamentaririk 39k. Une hauetan EAJ eta EH-Bildu elkartuta, hezkuntzan euskarak benetan ardatz izan behar duela adosten badugu 75etik 48ren adostasuna genuke, orduan baino handiagoa. Eta hezkuntza eragileak ere denak dotoz bat! Zergatik ez da orduan egiten? Zeri diogu beldur? Beti ere, ikasleen hizkuntza konpetentzia hobetzea helburu". ■